**MESA SECTORIAL DE PERSONAL DOCENTE NO UNIVERSITARIO**

**ACTA del día 28 de noviembre de 2012**

**ASISTENTES:**

**Representantes de las Organizaciones Sindicales:**

**AFAPNA:**
Pablo Arriazu Amat
Jesús Chivite Navascues

**APS:**
Fernando Carmona Ruiz

**CC.OO:**
Ana López Goñi
Itziar Usandizaga

**UGT:**
Minerva Fernández Valerdizi

**STEE-EILAS:**
Iñaki Redín Erro
Mikel Uribarren

**LAB:**
Aitziber Pérez Blanco
Expe Iriarte de Vicente

**ELA:**
Ander Pascual Ariz
Anihoa Barberena Urbicain

**Representantes de la Administración:**
Iñigo Huarte Huarte
David Herreros Sota
Begoña Unzué Vela
Isabel Mendaza Marrodán
Amaia Goñi Lacabe
Juan Ramón Elorz Domezain
Javier Lacarra Albizu

En Pamplona, siendo las nueve horas del 28 de noviembre de 2012, en la sala Santo Domingo de la sede del Departamento de Educación, se reúnen las personas reflejadas al margen en calidad de representantes de la Administración y de las Organizaciones Sindicales que se citan, a fin de tratar los asuntos del siguiente

**ORDEN DEL DÍA:**

1°. Aprobación de las actas de las sesiones de 4 de julio y de 9 de octubre de 2012.
2°. Convocatoria de adquisición de la especialidad de Educación Infantil del Cuerpo de Maestros. Se adjunta borrador de la convocatoria.
3°. Convocatoria para la constitución de listas de aspirantes a la contratación temporal en determinadas especialidades correspondientes a los Cuerpos de Maestros y de Profesores de Enseñanza Secundaria. Se adjunta borrador de la convocatoria y de sus dos Anexos.
4°. Otros asuntos.

**UNIBERTSITATETIK KANPOKO IRAKASLEEN MAHAI SEKTORIALA**

**2012ko azaroaren 28ko AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Sindikatuen ordezkariak:**

AFAPNA:

Pablo Arriazu Amat

Jesús Chivite Navascues

APS:

Fernando Carmona Ruiz

CCOO:

Ana López Goñi

Itziar Usandizaga

UGT:

Minerva Fernández Valerdizi

STEE-EILAS:

Iñaki Redín Erro

Mikel Uribarren

LAB:

Aitziber Pérez Blanco

Expe Iriarte de Vicente

ELA:

Ander Pascual Ariz

Anihoa Barberena Urbicain

**Administrazioaren ordezkariak:**

Iñigo Huarte Huarte

David Herreros Sota

Begoña Unzué Vela

Isabel Mendaza Marrodán

Amaia Goñi Lacabe

Juan Ramón Elorz Domezain

Javier Lacarra Albizu

Iruñean, 2012ko azaroaren 28ko 09:00etan, Hezkuntza Departamentuaren egoitzako Santo Domingo aretoan bildu dira alboan ageri diren Administrazioaren ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak, ondoko gai zerrendako gaien gainean aritzeko.

**GAI ZERRENDA:**

1-. 2012ko uztailaren 4ko eta urriaren 9ko saioen aktak onestea.

2-. Maisu-maistren kidegoan Haur Hezkuntzako espezialitatea eskuratzeko deialdia. Deialdiaren zirriborroa atxikitzen da.

3-. Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetako zenbait espezialitatetan aldi baterako kontratuetarako izangaien zerrendak sortzeko deialdia. Deialdiaren zirriborroa eta haren bi eranskinak atxikitzen dira.

4-. Bestelako gaiak.

**1º. Aprobación de las actas de las sesiones de 4 de julio y de 9 de octubre de 2012.**

Se pasan a la firma de las organizaciones sindicales las actas correspondientes a las sesiones de los días 4 de julio y 9 de octubre de 2012. También en relación con las actas correspondientes a diversas sesiones de
2012 y que ya han sido aprobadas por la Mesa, se recuerda a los sindicatos que aun no las han firmado que las tienen a su disposición en este momento o en el Servicio de Recursos Humanos.

**2º. Convocatoria de adquisición de la especialidad de Educación Infantil del Cuerpo de Maestros.**

Desde la Administración se hace referencia a que la convocatoria es igual a la de años precedentes, con la única diferencia de que no va unida a procedimiento de ingreso.

AFAPNA pregunta si va a haber oferta pública de empleo de Educación Infantil y se contesta que ni de Infantil, ni de ningún otro cuerpo o especialidad.

ELA comenta que nunca se ha sacado procedimiento de adquisición de especialidades sin estar vinculado a una OPE; se contesta que eso ha sido así en los cuerpos de enseñanzas medias, pero no en el de Maestros. Manifiesta que este tipo de convocatorias no son útiles para los funcionarios con destino provisional, a lo que se contesta que el Departamento de Educación no mira únicamente por los intereses de estos funcionarios, sino por los de todos y por los del sistema educativo. Finalmente, considera que las tasas de examen son muy altas, lo que se contesta que son las establecidas en la Ley para los niveles A y B.

STEE-EILAS propone que se acumule el 10 % de las plazas de todo el Gobierno de Navarra en una OPE de personal docente, a lo que se contesta que no es posible, puesto que no está adoptada la decisión sobre la OPE del Gobierno de Navarra.

LAB dice que la Comisión de Personal docente solicita la acumulación de las plazas y la convocatoria de OPE.

CCOO, en cuanto al punto 6.2 de la convocatoria, solicita que no sólo la mayoría de los miembros de las comisiones de selección tengan que ser de la misma especialidad, sino que lo sean todos ellos; se contesta que esa base es transcripción del Real Decreto y que, en la práctica lo serán todos.

La Directora del Servicio de Recursos Humanos anuncia que la convocatoria se publicará en la primera semana de enero.

**3º. Convocatoria para la constitución de listas de aspirantes a la contratación temporal en determinadas especialidades correspondientes a los Cuerpos de Maestros y de Profesores de Enseñanza Secundaria.**

La Directora del Servicio de Recursos Humanos puntualiza que no anula listas anteriores, sino que los aspirantes integrantes de esta nueva lista irán por detrás de los de listas anteriores, salvo las del Servicio Navarro de Empleo.

STEE-EILAS manifiesta que se debería revisar el sistema de gestión de listas para llegar a la existencia de una única lista, ya que la falta de OPE's crea una situación injusta a medio plazo; contesta el Director General de Recursos Educativos que, en estos momentos en que la situación es cambiante no es conveniente hacer cambios en la normativa ya que no se pueden prever los efectos que puede tener. Pregunta el sindicato si se vana convocar otras especialidades y se contesta que por ahora estas son las especialidades en que se han detectado necesidades.

LAB pregunta por que los Licenciados o Graduados en Arquitectura no pueden integrar las relaciones de Matemáticas; se contesta que las titulaciones están establecidas en la Orden Foral 60/2009, de 8 de mayo, y que no se pueden modificar en una convocatoria. Pregunta asimismo por la publicación y se contesta que será la semana del 10 al 14 de diciembre, y que se mandará un correo a los sindicatos y a los centros comunicándolo.

ELA solicita que se amplíe el plazo de presentación de instancias de 10 a 15 días y se contesta que se dejará en 15 días hábiles. Solicita también la comprobación de los requisitos y méritos presentados por los aspirantes. Se contesta que la presentación de documentación se puede hacer mediante fotocopia simple (no compulsada) y que se hará un muestreo de 20 expedientes para comprobar su veracidad.

**4º. Otros asuntos.**

Desde la Administración se comenta que se va a proceder incorporar nuevos perfiles de Pedagogía Terapéutica y Audición y Lenguaje, según los requisitos que se piden para la adquisición de la especialidad. En cuanto a los idiomas, se va a incluir el perfil de titulación B2, ya que está previsto en la Orden Foral que lo regula, por detrás del C1. En cuanto a Euskera, que para determinadas plazas con pocas horas de euskera se viene exigiendo una titulación de B2 y se va a incorporar el perfil C1 para permitir los llamamientos por lista afín.

Se da de plazo a los sindicatos hasta el 20 de diciembre para el análisis y propuesta, en relación con lo anterior.

**5º. Ruegos y preguntas.**

Expe Iriarte, como presidenta de la Comisión de Personal, comunica que se ha presentado un escrito en el registro del Departamento en el que se solicita que se remita a las organizaciones sindicales la propuesta de modificación del la Orden Foral que regula la orientación y sobre la que se han pedido aportaciones a estos profesionales y no a los sindicatos, así como que se convoque a la Mesa Sectorial para tratar este asunto.

Igualmente comunica que se han solicitado datos sobre jubilaciones, matriculación y otros a fecha 1 de julio de 2012.

En cuanto a los expedientes disciplinarios pone de manifiesto la preocupación por el incremento que se está produciendo. Solicita que el instructor del expediente no sea el Inspector del centro, aun cuando no haya habido información reservada previa

ELA trae a colación las siguientes cuestiones:

- que han detectado casos en los que el contrato se realiza sólo por los días lectivos para una misma necesidad. Se contesta que si aportan casos concretos, se analizará y se informará de las razones.

- en cuanto a las comisiones de servicio concedidas para ocupar temporalmente el puesto de trabajo Inspector durante el curso 2012/2013, si se va a hacer la convocatoria que sugiere el Defensor del Pueblo; se contesta que se están analizando las diversas actuaciones a realizar.

- solicita que se revise la provisión de plazas en el Conservatorio Superior, puesto que el 80 % de las plazas están cubiertas mediante comisión de servicios y propone que cuantas menos comisiones se tengan que conferir, será mejor para el sistema.

- en relación con las tutorías de los alumnos de Magisterio que se valoran en el concurso de traslados, pregunta si existe algún tipo de control por parte del Departamento de Educación; se contesta que el certificado de tutoría lo expide la UPNA, pero que se preguntará a la Dirección General de Educación, Formación Profesional y Universidades.

- en cuanto al abono de la parte proporcional de la paga extra de diciembre al personal contratado, solicita que se realice el mismo; se contesta que ya existe una Resolución del Director General de Función Pública que regula este asunto.

- finalmente solicita que se comunique cual va a ser para el ejercicio 2013 la repercusión de la reducción del 10 % de las liberaciones sindicales.

CCOO solicita aclaración sobre si la duración de los contratos de vacante en el curso 2012/2013 es hasta el 30 de junio o hasta el 31 de agosto. Se contesta que el criterio es que los ofertados en los actos públicos tienen una duración hasta el 31 de agosto y los posteriores hasta

30 de junio, pero que si un contrato de jornada parcial ofertado originalmente hasta 31 de agosto tiene una ampliación de jornada, la ampliación es hasta el 30 de junio, manteniéndose el contrato original hasta 31 de agosto. El sindicato mandará algún caso concreto para su análisis.

Pregunta también por la denegación de información a los sindicatos sobre si se está llamando o no para una determinada plaza; se contesta que, efectivamente, esa información no se ofrece a nadie para evitar que los aspirantes puedan jugar con su disponibilidad en las relaciones.

AFAPNA pregunta que cuantas veces se realiza el llamamiento telefónico a cada aspirante y con qué intervalo; se contesta que desde el mes de octubre se llama dos o tres veces al día, pero que en el comienzo de curso el llamamiento es más rápido para garantizar la agilidad en la cobertura de los puestos de trabajo. Termina solicitando el sindicato que hay que revisar este sistema de llamamiento.

Comenta la Directora del Servicio de Recursos Humanos que a medio plazo los listados de aspirantes se van a actualizar diariamente.

STEE-EILAS solicita la información prometida en su día por la Dirección General de Educación, Formación Profesional y Universidades sobre como ha quedado finalmente organizado el modelo de formación del profesorado; igualmente transmite la preocupación existente en determinados centros por la

imposición del Programa de Aprendizaje de Inglés (PAI) y pregunta por las medidas a adoptar en relación con el profesorado "sobrante".

LAB en relación con el mismo asunto de implantación del PAI, pone como ejemplo el CP de Villatuerta y solicita que se abran procesos de información y de debate entre los claustros, el Departamento de Educación y las familias. Solicita que se hagan públicas las evaluaciones sobre el programa en los centros en los que se ha implantado. Contesta el Director General de Recursos Educativos que la implantación se hace siempre a demanda del equipo directivo, de las familias y/o del Ayuntamiento.

STEE-EILAS solicita la elaboración de un plan estratégico sobre la implantación del PAI que incluya formación del profesorado, calendario de implantación, etc.

En relación con los Centros de Educación Básica de Adultos traslada la queja de los jefes de zona ya que no se les ha comunicado la retirada del complemento de puesto directivo correspondiente.

AFAPNA solicita la publicación en la web de las listas de aspirantes a la contratación procedentes de convocatoria de prensa y a través del INEM; se contesta que se analizará la posibilidad.

ELA pregunta por la forma en que se van a ejecutar sendas sentencias recaídas en relación con procedimiento selectivos de ingreso y se contesta que se ejecutarán en sus propios términos, tal y como manda la ley.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las once horas y diez minutos en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

---

**1-. 2012ko uztailaren 4ko eta urriaren 9ko saioen aktak onestea.**

Sindikatuei sinatzeko eman zaizkie 2012ko uztailaren 4ko eta urriaren 9ko saioei dagozkien aktak. Halaber, Mahaiak dagoeneko onetsi dituen 2012ko zenbait saiotako aktei dagokienez, oraindik sinatu ez dituzten sindikatuei gogorazi zaie beren eskura dituztela une honetan edo Giza Baliabideen Zerbitzuan.

**2-. Maisu-maistren kidegoan Haur Hezkuntzako espezialitatea eskuratzeko deialdia.**

Administrazioak aipatu du aurtengo deialdia aurreko urteetakoa bezalakoa dela, desberdintasun bakarra dela ez doala kidegoan sartzeko prozedurarekin batera.

AFAPNAk galdetu du Haur Hezkuntzan lan eskaintza publikorik izanen den, eta ezetz erantzun diote, ez dela izanen ez Haur Hezkuntzakorik ez beste kidego edo espezialitatekorik.

ELAk esan du orain arte espezialitateak eskuratzeko prozedura ez dela inoiz LEP batetik bereizita atera; erantzun diote hala izan dela irakaskuntza ertainetako kidegoetan, baina ez maisu-maistren kide

goan. Halaber, adierazi du era horretako deialdiak ez direla baliagarriak behin-behineko destinodun funtzionarioendako, eta erantzun diote Hezkuntza Departamentuak ez dituela soilik funtzionario horien interesak begiratzen, aitzitik, guztienak eta hezkuntza sistemarenak begiratzen dituela. Azkenik, esan du azterketen tasak oso garestiak iruditzen zaizkiola, eta erantzun diote legeak A eta B mailentzat ezarritakoak direla.

STEE-EILASek proposatu du Nafarroako Gobernu guztiko lanpostuen %10 irakasleen LEP batean bildu daitezela, eta erantzun diote ez dela posible, Nafarroako Gobernuaren LEPari buruzko erabakia hartu gabe dagoelako.

LABek esan du Irakasleen Batzordeak eskatzen duela lanpostuak pilatu daitezela eta LEPa deitu dadila.

CCOOk, deialdiko 6.2 puntuari dagokionez, eskatu du hautaketa batzordeko kide guztiak, eta ez gehienak, espezialitate berekoak izan daitezela; erantzun diote oinarri hori errege dekretuaren transkripzioa dela baina, praktikan, denak izanen direla espezialitatekoak.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak iragarri du deialdia urtarrileko lehen astean argitaratuko dela.

**3-. Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetako zenbait espezialitatetan aldi baterako kontratuetarako izangaien zerrendak sortzeko deialdia.**

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak argitu du ez dituela aurreko zerrendak ezerezten, baizik eta zerrenda berriko izangaiak aurreko zerrendetakoen atzetik joanen direla, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zerrenden kasuan izan ezik.

STEE-EILASek adierazi du zerrendak kudeatzeko sistema berrikusi beharko litzatekeela, azkenean zerrenda bakarra izatera iritsi arte, LEPrik ez izateak egoera bidegabea eragiten duelako epe ertainean; Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak erantzun dio une honetan egoera aldakorra denez ez dela komeni araudian aldaketak egitea, balizko efektuak aurrez ikusterik ez dagoelako. Sindikatuak galdetu du beste espezialitaterik deituko den eta erantzun diote oraingoz espezialitate hauetan atzeman direla beharrak.

LABek galdetu du Arkitekturako lizentziadun edo gradudunek zergatik ezin duten Matematikako zerrenden barruan izan; erantzun diote tituluak maiatzaren 8ko 60/2009 Foru Aginduan daudela ezarrita eta ezin direla deialdi honetan aldatu. Horrez gain, deialdia noiz argitaratuko den galdetu du eta erantzun diote abenduren 10etik 14ra bitarteko astean izanen dela eta mezu bat bidaliko dutela sindikatuetara eta ikastetxeetara argitalpena jakinarazteko.

ELAk eskatu du instantziak aurkezteko epea 10 egunetik 15era luzatu dadila eta erantzun diote 15 egun baliodunеko epea utziko dela. Era berean, eskatu du izangaiek aurkeztutako merezimenduak eta baldintzak betetzen dituzten egiaztatu dadila. Erantzun dute dokumentazioa fotokopia arrunten (ez konpultsatuen) bidez aurkeztu daitekeela eta 20 espedienteko lagina aztertuko dutela egiazkotasuna begiratzeko.

**4-. Bestelako gaiak.**

Administrazioko ordezkariek komentatu dute Pedagogia Terapeutikoko eta Entzumena eta Hizkuntzako profil berriak erantsiko dituztela, espezialitateak eskuratzeko eskatzen diren betekizunen arabera. Hizkuntzei buruz, esan dute B2 tituluko profila sartuko dela C1ekoaren atzetik, hura arautzen duen foru aginduan aurrez ikusita baitago. Euskarari dagokionez, euskarazko ordu gutxi dituzten lanpostu batzuetarako B2 titulua eskatu dela orain arte eta C1 profila ere sartuko dela, antzeko zerrendetatik ere deitzen ahal ditzaten izangaiak.

Sindikatuei abenduaren 20a arteko denbora ematen diete aurrekoa aztertu eta proposamenak egiteko.

**5-. Galde-eskeak.**

Expe Iriartek, Irakasleen Batzordeko buru bezala, jakinarazi du idatzi bat aurkeztu dutela Departamentuko erregistroan non eskatzen den orientazioa arautzen duen foru agindua aldatzeko proposamena igorri diezaietela sindikatuei, horren gainean ekarpenak eskatu dizkietelako profesional horiei baina ez sindikatuei, eta halaber, Mahai Sektoriala deitu dadila gaiaz aritzeko.

Era berean, jakinarazi du datuak eskatu dituztela, erretiroei eta matrikulazioei buruzkoak eta beste, 2012ko uztailaren 1eko datarekin.

Diziplinazko espedienteei dagokienez, ardura agertu du kopuruan gora egiten ari direlako. Eskatu du espedientearen izapidegilea ez dadila izan ikastetxeko ikuskatzailea, ezta aurretik isilpeko informaziorik egon ez bada ere.

ELAk ondoko gaiak jarri ditu mahai gainean:

- atzeman direla zenbait kasu non kontratua eskola egunetarako bakarrik egin den behar bererako. Erantzun diote kasu zehatzak ekartzen baditu aztertuko dituztela eta arrazoien berri emanen dutela.

- 2012-2013 ikasturtean zehar aldi baterako ikuskatzaile lanpostuan aritzeko emandako zerbitzu eginkizunei dagokienez, ea Arartekoak iradokitzen duen deialdia eginen den; erantzun dute egin beharreko ekintzak aztertzen ari direla.

- eskatu du Goi Mailako Kontserbatorioko lanpostuak nola betetzen diren berrikusi dadila, lanpostuen %80 zerbitzu eginkizunen bidez beteta daudelako, eta proposatzen du zenbat eta zerbitzu eginkizun gutxiago izan hobea izanen dela sistema.

- lekualdatze lehiaketan balioesten diren Maisutzako ikasleen tutoretzei dagokienez, galdetu du ea inolako kontrolik den Hezkuntza Departamentuaren aldetik; erantzun dute tutoretzaren egiaztagiria NUPek luzatzen duela baina galdetuko diotela Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiari.

- kontratatutako langileei abenduko aparteko ordainsariaren zati proportzionala ordaintzeko eskatu du; erantzun diote dagoeneko badela gai hori arautzen duen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emandako ebazpen bat.

- azkenik, eskatu du jakinarazi dadila zer eragin izanen duen sindikatuko ordezkari izateko liberazioen %10eko murrizketak 2013ko ekitaldirako.

CCOOk eskatu du argitzeko 2012-2013 ikasturtean lanpostu hutsak betetzeko kontratuek ekainaren 30a arte ala abuztuaren 31 arte iraunen duten. Erantzun dute zera dela irizpidea: jendaurreko ekitaldietan eskainitakoek abuztuaren 31 arte iraunen dutela eta ondokoek ekainaren 30a arte, baina hasiera batean abuztuaren 31 arte eskainitako lanaldi partzialeko kontratu baten lanaldia luzatzen bada, luzapena ekainaren 30a artekoa izanen dela, jatorrizko kontratua abuztuaren 31 arte mantenduko delarik. Sindikatuak kasu zehatzen bat igorriko du, aztertu dezaten.

Halaber, azaldu du sindikatuei ez dietela esaten lanpostu jakin baterako izangaiak deitzen ari diren ala ez eta informazio hori ukatzearen gainean galdetu du; erantzun diote, hala dela, informazio hori ez zaiola inori ere ematen izangaiek ez dezaten beren eskuragarritasunarekin jokatu zerrendetan.

AFAPNAk galdetu du izangai bakoitzari zenbat aldiz eta zein denbora tartetan deitzen zaion telefonoz; erantzun dute urritik aurrera egunean birritan edo hirutan deitzen dutela, baina ikasturtearen hasieran deiak azkarrago egiten dituztela, lanpostuak arin beteko direla bermatzeko. Bukatzeko, sindikatuak eskatu du deitzeko sistema hori berrikusi dadila.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak komentatu du epe ertainean izangaien zerrendak egunero eguneratuko dituztela.

STEE-EILASek azkenean irakasleen prestakuntzaren eredua nola geratu den antolatuta jakin nahi du, eta horri buruz bere garaian Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak agintutako informazioa eskatu du; era berean, jakinarazi du zenbait ikastetxetan arduratuta daudela Ingelesez Ikasteko Programaren (IIP) inposaketagatik eta galdetu du zein neurri hartuko diren "soberan" dauden irakasleekiko.

LABek, IIParen ezarpenaren gai horri buruz, Villatuertako IP adibide bezala jarri du eta eskatu du informazio eta eztabaida (klaustroen, Hezkuntza Departamentuaren eta familien artean) prozesuak ireki ditzatela. Eskatu du argitaratu daitezela programa ezarri den ikastetxeetan programaz egindako ebaluazioak. Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak erantzun du ezarpena zuzendaritza taldeak, familiek edo/eta Udalak eskatuta egiten dela beti.

STEE-EILASek eskatu du IIParen ezarpenari buruzko plan estrategikoa prestatu dadila, irakasleen prestakuntza, ezarpenaren egutegia etab. jasoz.

Azaldu du Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxeetako eskualdeko buruak kexu direla ez zaielako jakinarazi dagokien zuzendaritza postuko osagarria kenduko dietela.

AFAPNAk eskatu du webgunean argitaratu daitezela prentsako deialditik eta INEMen bidez datozen kontratazioko izangaien zerrendak; erantzun dute aztertuko dela aukera.

ELAk galdetu du nola exekutatuko diren kidegoetan sartzeko prozedurekin loturik jasotako bi epaiak eta erantzun dute epaietan esandakoa exekutatuko dela, legeak agindu bezala.

Besterik gabe, bilera bukatutzat eman da goizeko hamaikak eta hamarrean, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

**POR LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA, DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,**
**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN IZENEAN, HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA**

**POR AFAPNA,**
**AFAPNAren izenean,**

**POR APS,**
**APSren izenean,**

**POR CC.OO,**
**CCOOren izenean,**

**POR UGT,**
**UGTren izenean,**

**POR STEE-EILAS,**
**STEE-EILASen izenean,**

AMAIA ZUBIETA

**POR ELA,**
**ELAren izenean,**

**POR LAB,**
**LABen izenean,**

**EL SECRETARIO,**

**IDAZKARIA,**

**Javier Lacarra Albizu**